

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailearen 19a / 505. zenbakia



FOLKLORE JAIALDIA

Bulgariako Naiden Kirov, Galiziako Castro Floxo
eta Bergarako Xamatx dantza taldeek hartuko
dute parte gaur, 22:30ean Udal Pilotalekuan

Irudietan, Naiden Kirov taldeko dantzariak.

AUZOAK: BASERRIETARA HELTZeko SEINALE BERRIAK/5 • **SAN JOXEPE:** KARTEL LEHIAKETA DEIALDIA/14

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA

ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

GOYSMA

Urteaga 9
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gas



619 692 336
943 78 90 57
943 76 80 25

- Antena instalazioak
- Mantentze lanak
- GOITB ikusteko beharrezko guztia



EGUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bourzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L.

ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA

Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE

AROTZEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR

kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak

El izarra

elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

ATREBENTZIA EZ PADA / Ze nahixago dozu udan: pantanua, hondartzia ala igerilekuak?



M. JESUS BERGARETXE
49 urte



MILAGROS JAUREGI
78 urte




KONTXITA ARENAZA
71 urte



FELIPE ARANTZABAL
54 urte



AMPARO ETXANIZ
37 urte



LUIS MARTIN OREGI
38 urte

Nahixago dot igerilekua. Erosuagua egitten jat, ger-tuago daukadalako. Gaiñe-ra, pantanua baiño garbi-xagua da eta hondartzan baiño jente gutxiago ego-ten da.

Hirurak gustatzen jat, bai-ña ezin naiz jun. Igerileku-tik pasatzen naizenian sekulako enbidixia emoten dost. Dana dala, danen aurretik mendixa nahixa-go dot.

Nahixago dot mendira jutia, Elosura. Pantanora be-jun izan gara, baiña hon-dartzara ez gara juten. Bas-tidan etxetxua daukagu, eta hara juten gara abuztu erdi-tik irail bukaerara arte.

Ni mendira juten naiz. Hon-dartzia, igerilekua eta pan-tanua ez jat gustatzen; oso gutxi juten naiz. Kanpora juten banaiz, horra, behe aldera, orduan bai, baiña hemen, mendira.

Normalian ez naiz inora juten. Urakin zerikusixa dauken gauzak ez jat asko gustatzen. Gaiñera, Erri-oxan etxia daukagu eta hara juten gara, normalian, aste-buruetan.

Hondartzara jutia nahixa-go dot. Igerilekura edo pan-tanora jun izan gara, umie-kin, baiña gehixago gusta-tzen jat hondartzia. Araia, olatuak... Ambiente gehi-xago egoten da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZI BAKOITZERA DAGOKIONA Edukiontzi horiak, urdinak eta bi berde ezberdin ditugu. Papera edo kartoia, beira, zaborra... kolore bakoitzera gauza jakinak baino ezin dira bota. Inoiz gertatzen da edukiontziak beteta egotea eta haien alboan utzi beharra bota nahi dugun hori. Hala ere, batzuetan, berdin digu zaborraren tokian papera uztea edo plastikoa beiraren tokian.../M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5 KIROAK / 10 KULTURA / 12

Seinaleak landa-lurretan

Baserrietarako bideak argitzeko seinaleak jarriko ditu Udalak. Guztira, 350 seinale jarriko dituzte.

Nesken futbol txapelketa

Arloteak eta Ogizun izan dira Ipintzako txapel-dunak, kadete eta senior mailetan, hurrenez hurren.

Folklore jaialdia

Bulgariako, Ourenseko eta Bergarako dantza taldeen jaialdia gaur pilotalekuan, 22:30ean.

ASTEKODATUA

350

BASERRI BIDEETAN JARRIKO DUTEN SEINALE KOPURUA

Baserrri bideetan seinaleak jarriko ditu Udalak. Baserrri bakoitzaren kokapena argitzeko jarriko dituzte; guztira, 350 seinale. Seinaleek, gainera, izen berri-tua izango dute.

BESTE EKESANA

“Ibar osoko 50 adituk jardun dute ‘Deba ibarretik euskararen herrira’ lantzen eta horrek pisua ematen die hartutako erabakiei. (...) 50 lagun horiek batzen gaituenari eman diote garrantzia, baina hori guztia euskalki baturik egin barik. Norberaren fonetikari, morfologiari, morfosintaxiari, aldaerei, esapideei eta hiztegiari garrantzia emanda. Eta hitz potolo horien atzean, zer dago? Ba, gure aita-amek eta belaunaldi zaharragoek darabilten berbete. Liburuan ez duzu asmakizunik, eta hori da eskertzekoa. (...) Gure aitak ‘hau ogixau zelako ona dagon’ esango du eta ez ‘ogi hau nolako ona dagoen’. Eta berbete hori ona da! Bestela esan behar diegu gure familia moduko hamaikari ez daki-tela euskaraz. Nor ausartuko da?”

IBAN ARANTZABAL
‘Argia’/02-07-14

BERAIEKDIÑO E/ Iñigo Iñurrategi



Danok oporretara

Lerro hauek argia ikusi orduko oporrak hartze-ko asmoa daukat, opor desiratu bezain beharrezkoak. Lan urte luze baten hondarrea sari gisa iritsiko zaizkidan oporrak, izan ere amaierarik gabea gertatu baitzait azken aste hauetako lan orduen joana.

Eskerrak uztailaren azken astea bertan dauka-gun eta orduan bai, adio laneko penak, adio goiz jaiki beharra eta ordute-gien uztarria! Gehienoi bezala ez dit pena handiegirik emango lana uzteak, bego bere horretan zati batera-ko, egunak eta gauak berdin iritsiko baitira bata bestearen atzetik.

Oporrek beraiek ere ematen dizkigute lanak, baina. Lehe-nengo eta behin nora joan erabakitzea: Mexikora, Astu-riaserara, Greziara, Andaluzia zein Pirinioetara, mendira edo hondartzara, egonean egon edo gorputzari astindu bat ematera, ez da erreza izaten azken erabakia hartzea.

Behin nora eta nola joan nahi dugun erabakita, zer eraman behar dut? Galderak bati baino gehiagori buruko min galantak emango dizkio. Batzuk hilabete baterako motxila erdiarekin nahikoa daukate eta beste batzuk, berriz, aste bururako maleta pareta dute beharrez-ko; eramanak eramanda ere inoiz ezer alperrik eramaten ez duenik ere ezagutzen dut. Argi dagoena zera da: motxila zenbat eta handiagoa izan orduan eta gauza gehiagoren beharra sentitzen dugula.

Niri neuri motxila berriari zer eramanak ez nau gehiagor arduratzen, gutxiarekin molda-tzen bainaiz, baina bada motxilan sartu ez arren aldean eramatea komeni denik: umorea, ilusioa... eta lagun onak. Eta hiru hauek, zorionez, ez dituzte bidaia agentzian saltzen.

Beraz, gehiegi pentsatu gabe, banoa aurtengo udako abenturari ekitera. Izan zoriontsu eta oporrak gozatu.

“Baina bada motxilan sartu ez arren aldean eramatea komeni denik: umorea, ilusioa... eta lagun onak”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 20**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 21**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 22**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 23**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 24**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUENA, 25**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaizta 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 00
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|--------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorenzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 9:00. |
| Osintxu | Zapatuak: 11:00. |
| Domekak: 12:30. | Mizpirualde |
| Zapatuak: 19:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Elosu | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 10:30. | Antzuola |
| Ubera | Domekak: |
| Domekak: | 09:00, 11:30. |
| 10:30. | Zapatuak eta |
| San Juan | lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 11:00. | Uzarraga |
| Elorregi | Domekak: 10:00. |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

ARANTZAZURA ERROMESALDIA UZTAILAREN 25EAN

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Arantzazuko eta Loiolako santutegiak bisitatzeko irteera izango da uztailaren 25ean. Irteera 09:30ean egingo dute Bergararik, autobus geltokitik. Erromesaldia denez, ibilbidearen zati bat oinez egiteko aukera egongo da. Arantzazun, 11:00etan, penitentzia komunitarioa egingo dute, basilikako kriptan; eta 12:00etan, Meza Nagusia, basilikan; bazkaria 14:00etan izango da, Hospederian; 16:15ean, bideo emanaldia izango da; 17:00etan, Ama Birjinari agurra; eta 17:30ean, autobusak irteera dira Loiolarentz, eta Bergaran geldialdia egingo dute. Loiolatik itzulera 20:00etan izango da. Autobus txartelak (5,50 euro) eta bazkari txartelak (13 euro) San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon edo Barrenkaleko Zatoian.

IMPRECIKOEN ARGAZKIAK

Impreciko langile ohiek Zabala jatetxean egin zuten afariko argazkiak Zubietta 38ko Arantza dendan jaso daitezke. Interesatuak bertara jo dezakete. Argazkia doan eskuratu ahal izango dute.

JARDUNENAGENDA

JARDUN ELKARTEAK BEGIRALEAK BEHAR DITU

Jardunek 2002-03 ikasturtean aisialdi proiektuak aurrera eramateko begiraleak behar ditu. Interesatuak curriculum bidal dezakete 103 posta-kutxatilara. Argibide gehiago, Jardunek Errotalden duen bulegoan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 zenbakietan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Jon Lazkano ezin izan zen Drangoko gailurrera iritsi

Anemiak jota, Jon Lazkano mendizaleak ezin izan zuen Drango Dorreetako gailurra zapaldu. Gailurrerako metro gutxi falta zitzairenean, ondoezik eta indarrik gabe sentitu zen bergararra, eta Kike de Pablo espediziokidearen laguntzarekin paretatik jaitsi behar izan zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txistaria"

1. Txist edo antzeko zerbait ahoskatuz eginiko deia.
-Atzian txistaria entzuan dot, zein ete zan, eta bera.
-Pasatzerakuan txistaria ein ddotsat baiña ezta akordau.
2. Ijekzioa.
-Medikuak txistara txiki bat emun biotsu, baiña txiki-txikixa.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 14	9 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 12	25 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	21 °C	14 °C	0,7 l/m ²
Eguena, 11	23 °C	13 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 12	25 °C	11 °C	0,8 l/m ²
Zapatua, 13	20 °C	14 °C	- l/m ²
Domeka, 14	21 °C	9 °C	- l/m ²
Astelehena, 15	22 °C	12 °C	- l/m ²
Martitzena, 16	24 °C	11 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK


'VIVANCOS 3'

ZUZENDARIA: ALBERT SAGUER. AKTOREAK: EL GRAN WYOMING, ANNA GALIENA, JUAN LUIS GALIARDO.

HARIA. Polizia biren hilketa ikeritzen hasiko da *Vivanco*. *Vivanco* ez dabil beti legearen barruan, baina polizia barruko ustelkeria argitzen saiatuko da.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (Ikuslearen Eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



INFERNUKUA TABERNA
Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

AUZOAK/ Baserri-izenen grafia erabakitzeko lankidetzan aritu dira Udaleko Euskara Zerbitzua eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordea

Baserri bideetan seinaleak jarriko ditu Udalak etxeen izen berriarekin

MONIKA BELASTEGI

Baserrietarako bideak ezagutzera emateko seinaleak jarriko ditu Udalak. Seinaleok baserrien izena izango dute; Euskaltzaindiaren arauak aintzat hartuz moldatutakoak. Hirurehunetik gora seinale jarriko dituzte datorren astetik aurrera.

Baserrietarako bidea errazteko jarriko dituzte seinale horiek: zuri-berdeak dira, gezi itxura dute eta dagokion baserriaren izena dute idatzita. Guztira 350 seinale jarriko dituzte bide nagusitik baserrietarako bidegurutzetan, hain justu ere. Zutikako seinale horiek Carpinteria del Bidasoa Laister SLk egin ditu, eta aurrekontua 31.900 euro ingurukoa izan da (5.300.000 pezeta inguru).

Seinaleak jartzeaz Udal langileak arduratuko dira, eta datorren astean hasiko dira, seguruena. Abuzturako guztiak jarri ta egongo dira.

IZENEN GRAFIA BERRITUTA

Baserri-izenen grafia berriarekin jarriko dituzte seinaleetan, eta izenak finkatzeko, elkarlanean aritu dira Udaleko Euskara zerbitzua eta Euskaltzaindiko onomastika batzordeko Patxi Salaberria. Elkarlanaren helburua izan da baserrien izenak Euskaltzaindiaren arauak aintzat hartuz moldatzea. Horretarako honako materiala erabili dute: bere garaian Udalak kaleratutako beka baten bidez jasotako dokumentazioa eta ehunen bat herritarri egindako kontsultak.

Izenak finkatzeko lanean, jeneralean gaur egungo ahozko erabilera eta dokumentazioetan agertzen dena uztartzeko ahale-



MONIKA BELASTEGI

Oraingoz, udal biltegian daude seinaleak gordeta, baina abuzturako jarriko dituzte.

Bitxikeriak baserri izen batzuen jatorrian

GARITAO MARTISAEZKOA, Aldaiegia auzoa
Plakan *Garitano Erdikoa* jartzen zuen arren, *Gaittao Martiskoa* edo *Gaittao Martisokua* esan izan zaio. *Bergarako Euskera* liburuan, berriz, *Gaittao Markeskua* jaso zen. Dokumentazioaren arabera, XVII. mendean hango jabe izandako Martin Saez batetik dator, eta orain, izena erabakitzeko, hori hartu dute aintzat.

JUANZURIÑA, Angiozar auzoa
Orain arte *Jaunzuriena* zegoen plakan. Dokumentazioaren arabera, Juan Zuritik dator. "Fan" bihurtu zen "Juan" eta hortik sortu zen *Fanzuriña* eta gero *Frantziña*.

SANPRUDENTZIOZARRA, Elorregi auzoa
Gehienek *Estankua* deitzen diote. Orain arte *Elorregi Zaharra* erabili izan da Udaleko dokumentazioan. Jatorrizko izena *Sanprudentziozarra* da, hor egon zelako San Prudentzio eliza zaharra. Lehen izena erreperatu da etxearenak ez baitu zer ikusirik Elorregirekin.

LUBERRI, Elorregi auzoa
Luherrri izena ipini zioten jabeek etxe berriari, etxea egin zuten lursailari *Luerri* deitzen ziotela-eta. *Luerri* "lur berri"-tik dator eta esanahi hau du: lehenengoz lantzen den lurra, ordura arte baso edo garo-sail izandakoa.

gina egin dute. Irizpide nagusi gisa, izena osorik hartzea erabaki dute, izan ere, ahoz berbak mozteko joera dagoenez, baserri askoren izenak desitxuratuta heldu zaizkigu. Esaterako, ahozko hizkeran *Usasti* esaten badugu ere, baserriaren izena *Oruesagasti* da, edo *Mostei* esaten dugun arren, baserriaren izen osoa *Monasteriobidea*. Kasu horietan, baserriaren izen osoa jartzea hobetsi du lantaldeak.

Horrez gain, beste irizpide batzuk ere hartu dituzte kontuan. Batetik, izenak osagai bat baino gehiago duenean, gehienetan lotu egin dituzte: *Aldaiaspikoa*, *Aldaietxerri*, *Askasibarbolua* eta *Elortzaberrigoikoa*, beste batzuen artean.

Bestetik, izenak ez du "h" hizkia eramango, berria ez bada, behintzat. Izan ere, onomastikan ez da hizkuntza estandarreko araurik erabiltzen, izen berriak sortzerakoan ez bada. Beste hizkuntza batzuetan ere hala jokatzen dute. Horregatik, "h" hizkia ez erabiltzea erabaki dute. Beraz, izenak horrela agertuko dira: *Egiño*, *Aierdi*, *Loidi...* eta ez, *Hegiño*, *Aierdi*, *Lohidi...*

Arrazoi berberetatik, "ñ" eta "ll" izkiak erabili egin dituzte izenak finkatzeko orduan. Beraz, *Amillaga*, *Aldaigañekoa* edo *Larrañaga* ikusiko ditugu, eta ez *Amilaga*, *Aldai gainekoa* edo *Larrainaga*.

AUZOETAKO SEINALIZAZIOA

Landalurrean kokatutako etxeetako seinaleak jartzeaz gain, aurrerago, auzoen izena duten panelak ere jarriko dituzte errepide nagusietan auzoen kokapena errazteko asmoz. Panelak enpresa berak egingo ditu eta 47 izango dira guztira.

Segurtasun heziak saihesbidean

MONIKA BELASTEGI

Pasa den astean eta aste honetan barrena, segurtasun heziak jarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak saihesbidean. Algodonerako zubia bukatzen den tokian hasi eta Labegaraieta aldera jarri dute hezia; ehun metroko alanbrezko hezia hain justu ere.

Foru Aldundiko iturrien esanetan, oinezkoek saihesbidea ez gurutzatzeko hartu dute neurri hori. Badirudi hainbat herritarrek errepidea gurutzatzen dutela aipatutako gune horretan eta oso arriskutsua ei da; batetik,

auto ugari eta abiadura bizian igarotzen direlako bertatik, eta bestetik, bihurtzeko dagoenez, ikuspen gutxi dagoelako. Duela bi hilabete eskas herritar batek bizia galdu zuen hortxe saihesbidea gurutzatzen ari zela auto batek harrapatuta.

Segurtasun neurri horrekin batera, gune berean beste lan batzuk ere egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak: Ozaetatik saihesbidera ateratzeko dagoen zuzena estutu egingo du eta gune berdea zabaldu auto eta kamioiek zuzeneko alboetako batean apar-ka ez dezaten.



MONIKA BELASTEGI

Pasa den astean, posteak jarri zituzten eta aste honetan, alanbrezko hezia.



Aretoarekin batera sarrena nagusiko atea -XVI. mende Erdialdeko ate tailatua- berritzeko asmoa ere badu Udalak.

KULTURA/ Erakusketa areto gisa erabiltzeko birgaituko dute

Arostegiko baxua birgaitzeko proiektua esleitu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Arostegi etxeko baxua erakusketa areto gisa erabiltzeko birgaitze proiektua eta obra zuzendaritza esleitu ditu Gobernu batzordeak. Arkitektoek bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dute proiektua Udalean. Esleipena 15.312 eurotan egin da.

Iñaki Berasategi, Elisabet Ena eta Xabier Berasategi arkitektoei esleitu die Udalak Arostegiko behe solairuaren birgaitze proiektua; baita obra zuzendaritza ere.

Duela hilabete gutxi batzuk Kutzari erosi zion Udalak aretoa, 342.580 euro ingurugatik (57 milioi pezeta inguru) eta oso erabilera jakinerako birgaituko dute: erakusketa areto gisa erabiltzeko, batez ere, nahiz eta beste ekitaldi batzuk ere egiteko erabiliko duten, hitzaldiak eta mahai inguruak, besteak beste.

BEHE SOLAIRUA ETA SOTOA

Arostegi etxeko behe solairuaz gain, sotoa ere erosi zuen Udalak. Behe solairuak 220 metro koadro inguru ditu eta sotoak, berriz, 70 metro koadro. Behe

solairua da erakusketa areto gisa egokituko dutena. Sotoari dagokionez, biltegi gisa erabiliko dute, batez ere.

Gaur egun, udalak duen erakusketa areto bakarra Errotalde jauregian (kultura etxea) dago. Hala eta guztiz ere, jauregia Jardun Euskara Elkartearen eskuetan lagatzea dago aurrez ikusita. Beraz, Errotaldeko erakusketa aretoak utziko duen hutsunean beteko du areto berriak. Bestetik, dagoen eskari zabalari hobeto erantzuteko aukera ere emango diola uste dute Udal agintariek.

Irailean hasiko da txakurren jabeei zuzendutako kanpaina

MONIKA BELASTEGI

Uztailean izan beharrean irailean hasiko du Udalak 'Guztiok gure beharrak ditugulako' kanpaina. Txakurrak dituzten herritarrei zuzenduta dago, eta bi oinarri ditu: garbitasuna eta segurtasuna. Horiek bermatzeko gorotzak jasotzeko zakarrontziak jarriko dituzte.

Kanpainaren helburua da txakurrak dituzten herritar guztiak indarrean dagoen araudiaren gainean informatzea, eta, aldi berean, kontzientziaztea. Horretara

ko etxean jasoko dute kanpainaren berri txakurren jabeek. Bergaran 1.000 txakur inguruko errolda dago, eta Udalak txakur bakoitzaren jabearengana joko du kanpainaren berri emateko.

Kanpainak bi oinarri ditu, garbitasuna eta segurtasuna. Azken batean txakurren gorotzak jaso ditzaten kontzientziaztea nahi ditu Udalak txakurren jabeak. Hori horrela izateko, bitartekoak jarriko ditu Udalak; gorotza jasotzeko poltsak eta ondoren botatzeko zakarrontziak, hain justu ere. Zakarrontzi horiek herriaren erdi-

gunean jarriko dituzte, eta hamabiren bat izango dira.

Udalaren hasiera bateko asmoa zen uztailean zakarrontziak jarri eta ondoren kanpainari ekitea. Hala ere, irailera atzeratu da kanpaina, zakarrontzietatik arduratzen den enpresak ez dituelako oraindik ekarri.

ZAINZA AREA GOTU EGINGO DA

Kanpaina hasten denean, Udal-tzaingoaren zaintza areagotu egingo da, eta animalien gaineko ordenantzak jasotzen duenez, isuna 30 eta 300 euro bitartekoa izan daiteke.

Basalgo auzoko jaietan idi-demak izango dira aurten ere


MONIKA BELASTEGI

Basalgo auzoan jaiak ekingo die bihar, zapatua. 09:00etan jaiak hasiera iragartzeko kanpaiak joko dituzte eta baita etxafuegoak jaurti ere, eta 16:00etan, plater tiraketa egongo da; hala ere, lehen probak 12:00ak aldera izango dira. Izena ematea 15 euro izango da.

Jaiak egunean, hilak 25, jarraituko dute. 11:00etan meza nagusia egongo da eta 12:00etan 21. Basalgora Igoera txirrindularitza proba. Ondoren, 12:30ean,

pilota partiduak egongo dira. 17:30ean Basalgoko XI. Dantza txapelketa egongo da eta 18:30ean, idi-demak. Berritzuko *Artadialde* Arruako *Etxetxo*-ren aurka. Ondoren, erromeria egongo da Xafre eta Zaharra trikitilariekin.

Uztailaren 26an amaituko dira jaiak. 13:00etan meza egongo da eta 21:30ean, bertso afaria Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkano bertsolariekin, Gezalaga anai-arreba soinu-joleek alaituta. Bertso afarirako izena uztailaren 23a baino lehenago eman beharko da Iraho edo Mekolalde tabernetan.



Idi-deman Berritzuko *Artadialde* eta Arruako *Etxetxo* arotuko dira buruz buru.

LABUR

Basalgoko pilotalekua estaltzeko lanak esleitu ditu Udalak osoko bilkuran

Basalgo auzoko pilotalekua estaltzeko lanen zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa esleitu ditu Udalak osoko bilkuran; Luis Mari Alberdi aparejadoreari, hain justu ere. Helburua da orain dagoen pilotalekuari teilatua egitea, estaltzea, azken batean. Pilotalekua estaltzeko eskaria auzotarrek egindakoa da: batetik, pilotan egiteko gehiago aprobetxatuko litzatekeelako, meteorologiak ez luke-eta hainbeste eragingo erabileran; bestetik, bestelako ekitaldietarako ere erabili ahal izango luketelako.



Hainbat lorategitan txakurrak ez sartzeko oharrak jarri ditu Udalak.

UR ZERBITZUA/ Masterreka kaleko 16an irekiko dute bulegoa; horrez gain, 24 orduko telefono zerbitzua ere egongo da

Uztailaren 29an irekiko du Ur Kontsorzioak herritarren zerbitzurako Arreta Bulegoa

MONIKA BELASTEGI

Masterreka kaleko 16an irekiko du Arreta Bulegoa Gipuzkoako Ur Kontsorzioak. Beraz, uztailaren 29tik aurrera urarekin zerikusia duten gauza guztiak argitzeko, hara jo beharko dugu. Funtzionamenduaren berri emateko jakinarazpena etxean jasoko dugu.

Duela bi aste, osoko bilkuran, ur zerbitzua Gipuzkoako Ur Kontsorziara pasatzeko erabakia hartu zuen Udalak. Hori dela eta, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kudeatuko du ur zerbitzua aurrerantzean, eta ondorioz, bera izango da gu erabiltzaileon galdera, kezka eta zalantzak argitzeko ardura izango duena.

Horretarako abonatuendako Arreta Bulegoa irekiko du Kontsorzioak uztailaren 29an Masterreka kalean; 16. zenbakiko baxuan, hain justu ere.

ABONATUENDAKO ARRETA BULEGOA

Bulegoaren funtzioa da ur zerbitzuarekin harremana duen edozein tramitazio egitea: altak, bajak, titulazio aldaketak, helbideratze aldaketak, matxurak jakinaraztea... Astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara, eta aurrerago abuztuan ere irekita egongo da.

Bulegoaz gain, 24 orduko telefono zerbitzua ere izango da: 902 30 22 22, hain justu ere. Telefono horrek bulegoak eskainiko duen zerbitzu bera emango du. Eta edozein arrazoiengatik bulegora hurbildu ezin direnendako pentsatuta dago.

ALDAKETA BERRI, ETXEAN

Ur Kontsorzioak abonatu guztiei emango die zerbitzuaren berri



MONIKA BELASTEGI

Irudiko baxuan irekiko du Kontsorzioak abonatuendako Arreta Bulegoa. Hilaren 29an zabaltzeko egokitzen ari dira egunotan.

*Abonatu
aldaketen berri
emateko informazio
orria bidaliko du
etxera Kontsorzioak*

etxean jasoko duten gutun baten bidez. Gutunean, horrez gain, bezero bakoitzaren datuak agertuko dira: izen-abizenak, helbidea, zein tarifa duen, non helbideratuta duen... okerrik balego zuzentzeko asmoz.

*Bulegoaren funtzioa
da ur zerbitzuarekin
zerikusia duen
edozein tramitazio
egitea*

Horrekin batera, abonatuak nabaritutako dituzten aldaketen berri ematen duen eskuorri bat ere jasoko dugu etxean. Honako aldaketak, besteak beste: kontadoreen irakurketa Kontsorzioko langileek egingo dute, beraz,

*Arreta Bulegoaz
gain, 24 orduko
telefono zerbitzua
ere egongo da
abonatuendako*

eurak izango dira etxeetara hurbilduko direnak; kontadoreak zaindu, mantendu, konpondu eta aldatu ere eurak egingo dute. Faktorek formatu berria izango dute, Kontsorzioak egingo ditu, eta aldiari aldiari etxera helduko dira.



Luisa Agirrezabal hil zen martitzenean, 105 urte zituela

Luisa Agirrezabal bergararra martitzenean hil zen, 105 urte zituela. Adin horrekin Bergarako pertsona edadetuena zen, baita Debagoienekoa ere.

Irudian duzuen argazkia duela bi urteko urriaren 9an ateratakoa da, 104 urte bete zituen egunekoa, hain justu ere. Oraindik ere umore aparta zuen Luisak eta bakarrik bizi zen, nahiz eta familiakoak egunero-egunero joaten zitzaizkion etxera. Bere bizitzako azken urteak -hogei inguru- etxetik atera gabe eman zituen; ibilgailu batek harrapatu eta oinetan arazoak eragin zizkionetik. Hala ere herriko kontuak familia eta lagun bidez heltzen zitzaizkion eta herria nola aldatu den ere ondo zekien.

Luisaren aldeko hileta elizkizunak eguaztenean izan ziren, San Pedro parrokiari.

LABUR

GOITBko seinalea hartzeko, arazoak egunotan

Hainbat etxetan nabaritu ahal izango zenuten bezala, GOITBko katea ez da oso garbi ikusten egun hauetan. Joan den astean Bergaran jasotzen dugun seinaleari zuzenean eragiten dion aldaketa bat gertatu zen uhinen hedapenerako erabiltzen diren kanalen banaketan.

Hori horrela izanik, aurrerantzean 22 kanala -GOITBk erabili izan duena- Tele 5 kateak erabiliko du. Madrilen Ministerioak hartu duen erabaki horrek interferentzia larriak eragin dizkio Goiena Telebistari; ez Bergaran bakarrik, baita Elgetan ere.

GOITBko zuzendaritzak sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu nahi die Bergara eta Elgetako herritar guztiei, eta bide batez, arazoa konpontzeko bideak aztertzen ari direla ere adierazi nahi du, ahalik eta denbora laburrean seinalea Bergaran eta Elgetan berriro modu egokian izan dadin.

Asteburuetarako begiraleak behar ditu Jardunek

Jardun euskara elkarteak begiraleak behar ditu 2002-03 ikasturterako. Bost begirale, hain justu ere, asteburuko aisialdian zortzi eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ekintzak egiteko (jokoak, irteerak...).

Interesatuak Jardun elkartera bidali beharko dute curriculum, Errotalde jau-regira. Informazio gehiago elkartearen egoitzan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 telefonoetan.

Astelehenean itxiko dute Santa Marina parrokia

Astelehenean, uztailak 22, itxiko dute Santa Marina parrokia zorua jasotzeko lanei ekiteko. Martxora arte halaxe egongo da, seguruenik, eta bien bitartean, meza entzuteko aukera Sierbetako kaperan egongo da, eta hileta elizkizunak, berriz, San Pedro parrokiari izango dira.

Bestalde, Santa Marinako jaiek aurrera egingo dute asteburuan. Gaur, egubakoitza, erretiratuendako hainbat ekitaldi egongo da. Bihar, 16:00etan, Santa Marina saria txirindularitza proba, eta domekan, jaiei amaiera emateko, 09:00etan txistularien kalejira egongo da, eta 12:30ean bandaren kontzertua.



BERGARATIK KANPEZURA MENDIRIK MENDI

Hogeita bost lagun joan ziren aurreko asteburuan Bergararik Kanpezurako ibilbidea egitera. Mendirik mendi joan ziren Kanpezuraino mendiko bizikletaz. Amaia Etxeberriarteunen laguntza izan zuten ibilbide hori

egiteko. Bergararik irten, Elgeako mendizerratik igaro, eta Iturrietako mendietatik zehar Santa Teodosiako ermitaraino iritsi ziren (argazkian), eta handik Kanpezura. Kanpezutik Bergarara autobusez itzuli ziren. Ehun bat kilometroko

ibilbidea egin zuten, guztira, mendirik mendi. Gogorra izan zen ibilbidea, baina oso ondo moldatu ziren txirindulariak; beraz, datorren urtean ere era horretako martxa bat egiteko asmoa dute.



BERGARAKO OLATU GORRIA, NOJAN

Bergarako Marea Roja taldeak Nojako (Kantabria) 12 orduko Futbito Txapelketan parte hartu zuen joan den asteburuan. Koreako selekzioaren omenez jarri diote izen hori taldeari, eta bide batez, izenak zorte pixka bat emango dien itxaropenaz. Eta badirudi, gainera, eman ziela, bai, zortea. Finalaurrekoetara iristerik lortu ez zuten arren, txapelketa ona egin zuten. Lehenengo partidua 5-3 irabazi zuten; bigarrena ere irabazi egin zuten, 5-4, baina hirugarrena irabazterik ez zuten izan: 7-4 galdu zuten. Hogeita hamasei taldek parte hartu zuten Nojako txapelketa horretan.

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

BERGARARRAK MUNDUAN

AMAIA ZURUTUZA

27 URTE / KIMIKARIA / GLASGOW (ESKOZIA)

“Glasgowen bizi garen bergararrok sarritan egoten gara elkarrekin”

AINZANE IRIZAR

Sei urte beteko dira Amaia Eskoziara joan zela. Kimikako ikasketak egiten ari zen Donostian; laugarren ikasturtea egitera joan zen Eskoziara, beka bati esker. Han urtebete egin ostean, Bergarara etorri zen, baina Eskoziara itzultzeko gogoarekin. Horrela, doktoregoa egitera itzuli zen Eskoziara hurrengo urtean. “Hiru urte egin nituen tesia idazten; era berean, lanean ere hasi nintzen kimikaren gaineko proiektu baten”, azaldu digu Amaiak.

Gustura dago Amaia Eskoziara: “Oso giro ona dago Glasgowen, asko gustatzen zait. Gainera, hemen bizi garen bergararrok ere askotan egoten gara elkarrekin”, diosku. Amaiaz gain, Kepa Mendibil, Anartz Unamuno eta Rafa Salazar ere hantxe bizi dira. “Euskal etxe bat sortzea ere pentsatu genuen, baina gehiegizko lana emango zigula ikusi genuen!”(barrez).

Eskoziarrak jatorrak direla azaldu digu: “Euskaldunon oso antzerakoak dira, gu baino itxixeagoak, baina orokorrean oso jatorrak”.



“Hemengo bizimodua ezberdina da”, diosku; “gainera, familiarik ez daukadanez hemen, lagun mordoa egin dut eta harreman handiagoa dut lagunekin”. Gainera, hirian bizi izanda, kultura eskaintza zabala dutela aipatu digu, eta asko gustatzen zaiola hiriko

“Eskoziarrak oso jatorrak dira orokorrean, euskaldunon antzerakoak”

bizimodua.

Eguraldia da Eskoziara Amaiari gutxien gustatzen zaiona: “Eguraldi txarra egiten du gehienetan, eta horrek eguna tristatu egiten du”.

Gustura dagoen arren, baina, Euskal Herrira itzultzeko gogoia ere badaukala azaldu digu: “Hemendik hilabete batzuetara, beharbada, itzuli egingo naiz; dena dela, ez zait gustatzen dena planifikatzerik, denborak esango du”.

Oraingoz, oporrak dituenaz, hurrengo astean, bisitan etorriko zaigu herrira.

MINGAINARITIRAKA



Luis Angel Santiago ‘Santi’

ARTEKALE PIZZERIXAKUA

‘Santi’-k 35 urte dauzka, eta aramai-xoarra dan arren, Bergaran bizi da oin dala ixa bost urtetik, pizzerixia zabaldu zebanetik. Aurretik, Arrasateko pizzerixia baten lan egin zeban.

Zure pizzarik gustokuena?

Egixa esan, danak gustatzen jat, baiña bat esatekotan, pepperoni gaztaiakin.

Zein da pizza on baten sekretua? Masan dago sekretua?

Beste edozein plateratan bezela, oso inportantia da osagai danak freskuak eta kalitatezkuak izatia.

Bizitzako ze osagai dozu gustokoen? Ez dakit zein ordenatan, baiña amastadia eta sexua.

Eta ze osagai falta jatzu bizitzan? Dirua.

Etxez etxe banatzen ditzuzue pizzak. Zapañu baten, esaterako, zenbat banatzen ditzuzue?

Udan gutxiago banatzen ditzugu, eguraldi onakin jentiak etxetik urtetzen dabela; neguan, zapatu gabe baten, berrogei bat pizza banatzen ditzugu.

Pizzaz aparte, zein da zure espezialidadia?

Gisauak ondo urtetzen jat.

Bazkari ideal bat?

Konpainia onian egindako edozein.

Denpora librian ze egitten dozu?

Batez be, deskantsau. Irakurtzia be gustatzen jat.

Gustoko liburu bat?

El perfume edo La conjura de los necios.

Oporretarako planik egin dozu?

Bai, pizzerixia ixtia; ondio ez dakit nora jungo naizen.

Nora egingo ziñuke bidaia bat?

Brasilera, lagun bat bisitatzera.

Beti egin nahi izan dozun zeozer, baiña ondio lortu ez dozuna?

Lanik egin barik bizi izan.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Aritz Beistegi

VIETNAM / 2001eko abuztuaren

Bost lagun joan ginen iaz, abuztuaren, Vietnamera. Ezagun batzuek oso ondo berba egin ziguten Vietnamez; gainera, ez genuen Asia ezagutzen eta bageneukan hura ikusteko gogoia. Horrelaxe erabaki genuen Vietnamera joatea, eta hiru aste egin genituen hantxe. Horrelako tokietara joan aurretik hainbat bakuna hartu behar izaten da, eta horrelaxe egin genuen.

Motxila bizkarrean, hegazkina hartu eta Vietnam aldera abiatu ginenean, nik neuk ez nekien gauza askorik Vietnamez; nahiago izaten dut ezer jakin barik joatea, aurreiritzi barik.

Mapari begiratu gero, ikus daiteke oso herrialde estua dela Vietnam. Gu hegoaldera iritsi ginen lehenengo egunean, Saigoneran, hain zuzen ere. Oso hiri kaotikoa da Saigon: bizimodua kalean egiten dute han eta zirkulazioa ere oso kaotikoa izaten da, denak motoan ibiltzen dira-eta.

Hegoaldean hasi genuen, bada, bidaia, eta handik iparraldera abiatu ginen, Hanoi-iritsi arte. Oso toki politak ikusi ahal izan genituen. Shapa, esaterako, mendialdeko eskualdea da eta oso polita da.

Dena dela, vietnamdarren izaera eta eurekin izan genuen harremana azpimarratuko nuke nik, gehienbat. Horixe da bidaia hartatik gordetzen dudana oroitzapen politena, ikusi genituen toki eta monumentuen oroitzapenak baino gehiago. Irtsi orduko, jende mordoa inguratu zitzaigun, gurekin berba egiteko gogoz, gu ezagutzeko gogoz. Ez genuen intenzio txarrik zeukan pertsona bakar bat ere ezagutu; alderantziz, beti lagun egiteko prest zegoen jendea ezagutu genuen. Gerra gogorra izan zuten arren, ez dute inolako gorrotorik gordetzen eta oso ondo hartzen dituzte kanpotarrak. Merezki du Vietnam bisitatzea.



“Saigon oso hiri kaotikoa da; bizimodua kalean egiten dute han”

“Saigonon hasi genuen bidaia eta Hanoi-iritsi izan ginen”

AINZANE IRIZAR



Bac Ha-ko azoka, Vietnameko iparraldean.

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak


Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



**GARAZI OLABARRIA
IÑAKI ELKOROBARRUTIA
IBON PEREZ**
Marino Gonzalezen ikasleak

**MARRAZKI
ERAKUSKETA**
NAHIKARI taberna.
Masterreka 20. Bergara.
Tel. 943 76 57 71

FUTBOLA

Ogizunek 4-0 irabazi zion Ipintzako senior nesken finala Potzu ta Zapaburuak taldeari

Kadete mailan Arloteak taldeak lortu zuen txapelunen kopa, egubakoitzean jokaturako finalean Elgetari 3-1 irabazita

EDU MENDIBIL

Ogizun taldeak uste baino errazago irabazi zion Potzu ta Zapaburuak taldeari Ipintzako senior nesken finala. Joan den egubakoitzean, 4-0 nagusitu ziren Ogizun taldekoak. Bestalde, kadete mailan Arloteak izan zen txapelkun, Elgetari 3-1 irabazita.

Senior mailan txapelketan jardun duten zortzi taldeetatik onenak izan direla erakutsi dute Ogizunekoek. Finalera iritsi aurretik Ogizunek talde sendoa zuela azaldu zuen, eta joan den egubakoitzean ere ez zuen inolako eragozpenik izan Potzu ta Zapaburuak mendean hartzeko. Lehia handiegirik ez izan arren, Ipintzara hurreratutakoek ikuskizunarekin gozatu zuten. Eva Alzasek (2 gol), Susana Santorrek eta Larraitz Madariagak egin zituzten Ogizunekoek golak.

Finalaren ostean sari banaketa ekitaldia izan zen. Bi finalistetako sariak egon ziren eta, horrez gain, banakako sariak ere banatu zituzten: Silvia Valorrek (Potzu ta Zapaburuak) jokalaria onenari zegokion saria jaso zuen, Sokoia Azkaratek (Ogizun) atezain onenarena eta, azkenik, Nagore Ricok (Arloteak) BERRIGARAK golegile onenari emandako saria eskuratu zuen. Antolaketa batzordeak parte hartu duten talde guztiak saritzeko ahalgina egin zuen eta, hala, Pentol's Tean txapelketako talde jatorrena izendatu zuten. Oihana Iñurategik jaso zuen saria; Uxue Lazkano Antolaketa batzordeko kideak eman zion.



Ogizun eta Potzu ta Zapaburuak taldeetako jokalariek egubakoitzeko finalaren ostean. Ikusten denez, kiroltasuna izan zen nagusi.

KADETE MAILAN ARLOTEAK TXAPELDUN

Kadete mailako finalean Arloteak taldeak 3-1 irabazi zion Elgetari egubakoitzean. Jokalaria onenaren saria Lexuri Doyaguerendako (Arloteak) izan zen eta, antolatzaileen ustez, Soraluze izan da talde jatorrena.

Aurtengo Ipintzako txapelketan 160 neska inguru aritu dira alebin, kadete eta senior mailatan. Antolatzaileak oso pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin.




Gorek finalerako txartela lortu zuen astelehenean.

Gore-Mongatxurrak finala, gaur

Gaur, egubakoitza, nagusien Futbol Txapelketako finala jokatu dute Ipintzan, 19:30ean. Aurrez aurre, Gore eta Mongatxurrak. Gorek 4-3 irabazi zion Altos Pornosi finalerdietan. A Ze Flaxak eta Mongatxurrak bana berdindu zuten martitzenean, eta penaltietan Mongatxurrak irabazi zuen.



Larraitz Madariaga (Ogizun) eta Antolaketa batzordeko Jose Luis Beitia.



Uxue Lazkanok txapelkunordeen kopa eman zion Jasone Larrañagari.



Eva Alzas (Ogizun), Eva Izuskizak (Trober) emandako trofeoarekin.



Silvia Valor izan da jokalaria onena. Argazkian, Bittor Agirrebarrenarekin.



Sokoia Azkarate, txapelketako atezain onenaren trofeoarekin.



Nagore Ricok golegile onenari BERRIGARAK emandako trofea eskuratu zuen.

FUTBOLA

Bergara KEko Futbol Sailak zuzendaritza barik jarraitzen du


Gaur, egubakoitza, gaia aztertzeke premiazko batzarra izango da, Ipintzan, 19:00etan

EDU MENDIBIL

Ekainaren 15ean Batzar Orokorra egin zutenetik, Bergara KEko Futbol Sailak presidente barik jarraitzen du. Antza denez, ez dago zuzendaritza hartzeko prest dagoen talderik, eta Zaitegi presidente ohiaren ustez, "taldea desagertzeko arriskuan dago".

Bergara Kirol Elkartek bere sorreraren urrezko ezteiak bete-ko ditu aurten eta Zaitegiren ustez, "egoera benetan larria da. Abuztuaren bukaerarako datoren denboraldiko fitzak tramitatu behar dira, eta, zuzendaritza barik, taldea desagertzeko arriskua hor dago. Jokalarien gurasoei eta laguntzeko interesa duten guztiei dei egiten diegu gaurko batzarrera etortzeko. Ea guztion artean elkarte aurrera ateratzen dugun". Hitzordua gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Ipintzan.

Zaitegik azaltzen duenez, "elkatea nahiko egoera ekonomiko onean dago gaur eta taldearen zuzendaritza hartzen dutenek ez dut uste arazorik izango dutenik horri dagokionez. Hori bai, zuzendaritza hartzea talde-lana izaten da eta presidentearen eta gainerako zuzendarien arteko harremana estua izan behar da. Nire ustez, jokalarien gurasoak gehiago inplikatu beharko lirarteke une honetan".



Iñigo Zaitegik presidente kargua utzi zuen ekainaren 15eko batzarrean.

50. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Bestalde, 50. urteurreneko ospakizunekin jarraituz, elkartearen historia batzen duen liburua irailaren 22an aurkeztuko dute, udal-letxean. Egun horretan, elkarte- an izan diren jokalarik, zuzendari eta laguntzaileekin bazkaria

izango da Lasa jatetxean. Bazkaria antolatzen ari direnek ezin izan dute guztiengana jo. Bazkaria joateko interesa duten guztiek Kutxan edo Euskadiko Kutxan irekitako kontuetan eman dezakete izena, uztailearen 31 baino lehen, 45 euro ordainduta.

Estiloetako errelebua 3. izan zen Euskadiko Txapelketan

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko 4x100 estiloetako errelebua 3. sailkatu zen aste bukaeran Santurtzin jokaturako Euskadiko Txapelketan, infantiletan. Neritzel Albi-suak, Elixabeth Laskurainek, Goiatz Pérezek eta Maite Urtze-laik osatzen dute errelebua. Bron-tzezko domina lortzeaz gain, zortzigarren izan genituen 4x100 estilo librea eta, azkenik, 4x200 estilo librea 10. tokian geratu ziren. Amaia Anduezak zuzentzen duen errelebua Gipuzkoako txapelketa da 4x100 estiloetan.

Banaka, ondoko emaitzak lortu zituzten Santurtzin: Neritzel 4.a izan zen 400 estiloetan, 5.a 100

m. bular proban eta 6.a 200 bularrean; Maite 4. postua lortu zuen 100 bizkarrean, eta seigarrena izan zen 200 estiloetan eta 200 bizkarrean; Elixabet, aldiz, 4.a 200 tximeletan, 5.a 100 tximeletan eta 12.a 100 bizkarrean; eta, azkenik, Goiatz 7.a izan zen 200 bizkarrean, 9.a 100 libreetan eta 13.a 200 libreetan. Puntuzko sailkapenean, 1988an jaiotako arteen 3. sailkatu ziren bergararrak. Nesken sailkapen orokorrean, berriz, 8. postuan geratu ziren.

Bestalde, Nerea Anduagak Gipuzkoako junior mailako txapelketan hartu zuen parte aste bukaeran, Ordizian. Nerea zortzigarren izan zen 50 libreetan eta 100 libreetan 10. sailkatu zen.



Errelebueta taldea. Zutik, Elixabeth eta Neritzel. Makurtuta, Goiatz eta Maite.

FOTOKIROLA



Herriko zikloturistak Aubisque gainean

Bergara Txirrundulari Elkartek Pirinioetara irteera egin zuen aste bukaeran. Egubakoitzean irten ziren 15 lagun Bergaratik, eta Larunsen lo egin ondoren, zapatuan, 90 kilometroko irteera egin zuten bizikletan. Tartean, Tourreko txirrundulariek ezaguna duten Aubisque mendate ezaguna (16 kilometro ingurukoa) igo zuten. Primerako eguraldia izan zuten eta sasoi onean direla azaldu zuten guztiek. *Allez, allez!!!*

Igeriketa, Uda Kanpainako jarduera arrakastatsuen

E.M.

Udal Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, 638 partaide izan dira aurtengo Uda Kanpainan. Aurreko aldietan bezala, hainbat kirol jarduera egiteko aukera egon da azken asteotan. Igeriketa izan da jarduera arrakastatsuen, iaz bezala. Guztira, 233 lagunek hartu dute parte hasiera (73 lagun) eta hobekuntza (78) ikastaroetan. Aerobikak ere harrera bikaina izan du: umeendako eskoletan 19 neska-mutiko ibili dira eta helduendako ikastaroetan, 149 lagun. Tenisa izan da hirugarren jarduera, partaide kopuruari begiratuta: Labe-

garrietako tenis pistan eman dituzten eskoletan 58 gaztetxok jardun dute eta helduak, berriz, 51 izan dira.

Gainerako jarduerari dagokienez, honako partaidetza izan da: multiaktibitate (40 lagun), pilota (32), dantza modernoa (25) patinajea (11), eskalada (11) eta defentsa pertsonala (9).

SASKIBALOI TXAPELKETA, ZAPATUAN

Bestalde, infantil mailako 3x3 Saskibaloiko Txapelketa jokatu da zapatuan, hilaren 20an, Labe-garrietako kiroldegian, 11:00etatik aurrera. 1987tik 1990era bitartean jaiotako neska-mutikoen jardungo dute.

Hona hemen 2.Merkealdiak

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

DANTZA/ Naiden Kirov, Castro Floxo eta Xamatx taldeek folklore jaialdia egingo dute gaur, 22:30ean, Udal Pilotalekuan

Bulgariako, Galiziako eta Euskal Herriko folkloreek bat egingo dute gaur Bergaran

MONIKA BELASTEGI

Hiru taldek hartuko dute parte gaur Udal Pilotalekuan izango den folklore jaialdian: Bulgariako Naiden Kirov dantza eta antzerki taldeak, Ourenseko Castro Floxo dantza taldeak eta Bergarako Xamatx taldeak. 22:30ean izango da, Udal Pilotalekuan.

Udalak eta Xamatx dantza taldeak lankidetzan antolatuko dute gaur gaueko folklore jaialdia. Xamatzek harreman estua du Ourenseko Castro Floxo dantza taldearekin; duela hilabete, esaterako, Ourense izan ziren Xamatx dantza taldekoak, Castro Floxo taldeak gonbidatuta. Hori horrela, Xamatzekoek itzuli egin nahi izan diete gonbita eta, horrela, Bergarara etorriko dira galiziarrek.

Bulgariako taldeari dagokionez, Udala arduratu da Bergarara ekartzeaz. Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duen taldeetako bat da Naiden Kirov, eta hurbiltasuna aprobetxatuz, gurera gonbidatu ditu Udalak.

Jaialdiari dagokionez, talde bakoitzak nork bere dantzak egingo ditu, nahiz eta protagonismo nagusia kanpotik etorritako bi taldeek izango duten. Xamatzek jaialdi hasieran Aurrekua eta amaieran Ikurrin dantza baino ez ditu egingo, euren esanetan, kanpoko taldeei dantzarako denbora luzeagoa emateko.

BULGARIATIK, NAIDEN KIROV TALDEA

Naiden Kirov dantza eta antzerki taldea 1960. urtean sortu zuten, Rousse izeneko herrian. 47 lagunek osatzen dute, 23 emakume eta 24 gizonezko; eta horrez gain, taldearen koreografiari musika



Bulgariako Naiden Kirov dantza eta antzerki taldea 47 lagunek osatzen dute.



Ourenseko Castro Floxo dantza taldea iaz ere izan genuen uztailean Bergaran.



Begarako ordezkarri gisa, Xamatx dantza taldeak hartuko du parte jaialdian.

jartzen dion orkestra bat ere badu. Orkestra horrek, musika tresna tradizionalak jotzeaz gain -kavala eta gaita, besteak beste-, akordeoia eta baxua ere jotzen ditu.

Taldeko dantzari guztiek, dantza egiteaz gain, kantuan ere egiten dute, eta orkestrako kideek, abestu eta instrumentuak jotzeaz gain, dantzatu ere egiten

dute batzuetan. Egiten duten erreperitorioan Bulgariako herrialde guztietako dantzak jasotzen dituzte, eta darabilten janzkera oso oparoa da.

*Bulgariarrek,
dantzan egiteaz
gain, kantuan ere
egiten dute
emanaldietan*

*Ourensearrek
pandeiradak,
muñeirak eta jotak
egingo dituzte,
besteak beste*

OURENETIK, CASTRO FLOXO

Galizian Ourense ei da dantzarako tradizioa ondoen gorde duen probintzia. 1984. urtean, Dantza Eskola Probintziala sortu zuten. Eskola nagusi horrek Ourense osoan barrena ditu hedatuta eskolak eta 5.000 ikasle inguru ari dira dantza traizionalak ikasten. Eskola horren helburua da Galiziako musika, dantza eta eta, oro har, folklorea ezagutzera ematea.

Gaur Bergaran ikusiko dugun Castro Floxo taldea Eskola horren baitan sortu da, eta, jakina, Galiziako doinu eta dantzak ekarriko ditu gure artera: muñeirak, jotak, mazurkak eta pandeiradak, beste batzuen artean. Taldea berrogei dantzarik osatzen dute eta, dantzez gain, ikusgarria da dantzariak darabilten janzkera. Dantzaren araberak, jantziaren batzuk lane-rako jantzi sinpleak dira eta beste batzuk, aldiz, festa giroko jantzi dotoreak.

Mario Fernandino Sextet bihar Espoloian

MONIKA BELASTEGI

Hirugarren jazz emanaldia bihar, zapatua, izango da, Espoloian, 22:30ean. Aurreko emanaldiak egubakoitzetan izan diren arren, Mario Fernandino Sextet taldeak egingo duena zapatuan izango da; izan ere, gaur, folklore jaialdia dago Udal pilotalekuan, eta biek bat egin ez dezaten aldatu dute jazz kontzertua zapatara.

Biharko taldeari izena ematen dion musikaria, Mario Fernandino, Bergarako Musika Eskolako saxofoi irakaslea da. Gainerako bost musikariak ere Musika Eskolako eta Kontserbatorioiko irakasleak dira Gipuzkoan, Nafarroan eta Errioxan.

MESSENGERS SEIKOTEAREN ESTILOA OINARRIAN

Duela lau urte, beste bost musikarirekin elkartu eta eratu zuen seikotea Mario Fernandino saxofoi jotzaileak. Besteak beste, Art Blakey eta Messengers seikotearen estiloa dute oinarrian; 50eko eta 60ko hamarkadetako taldeena, hain justu ere.

Euren erreperitorioan eurek konposatutako doinuak eta talde ezagunen bertsiok egiten dituzte. Fernandinorekin batera honako bost musikariek osatzen dute taldea: Carlos Hipolito (tronboia), Mikel Valcarlos (tronpetak), Javier Olabarrieta (pianoa), Cochán Martínez (bateria) eta Marcelo Splits kontrabaxua.



Mario Fernandinek saxofoi eskolak ematen ditu Bergarako Musika Eskolan.

KULTURAPILULAK

Musika Bandaren emanaldia Fraiskozuri plazan

Etzi, domekan, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Fraiskozuri plazan, 12:30ean, Santa Marinako jaien egitarauaren barruan. Honako piezak joko ditu: A. González Chirlaqueren *Ibarrik Tolosara* euskal mar-txa; J. de Haan-en *Music for a Solemnity* obertura; M.F. Caballeroren *El duo de la Africana* zartzelako aukeraketa; C.M. Schömberg-en *Miss Saigon* musikala; eta D. Kabalevsky-ren *Comedian's Galop*. Emanaldiaren aurretik kale-jira egingo dute, 11:30ean.

E, TXO!

LOTSABARIK/ Nerea Anduaga

“Oso neska urduria eta lotsatia naiz”

AINZANE IRIZAR

Oso lotsatia ei da, baina elkarrizketa egitea proposatu orduko baiezkoa eman digu. 16 urte dauzka eta etorkizunak ez du asko arduratzen; sekula ez ei du pentsatu hemendik 20 urtera zelan egongo den.

• Txikitán, zer izan nahi zenuen?

Txiki-txikitán, irakasle izan nahi nuen, agintzea gustatzen zitzaidan-eta. Gero, igerilari profesional ere izan nahi nuen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Egia esan, ez dut sekula horretan pentsatu; oraindik, behintzat, ez naiz horretan pentsatzen hasi.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko eta ikasteko; anaiak nik baino gehiago ikasten zuen, eta niri horregatik errepikatzen didate ikasteko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat taktikarik; gauetan

etxera joateko jartzen didaten ordutegiarekin, adibidez, kontrolatzen naute, baina konformatzen naiz.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, osasunari eta familiari.

• Zure bertute bat?

Oso neska alaia naizela.

• Eta hutsune bat?

Oso urduria eta lotsatia naiz; gustatuko litzaidake pixka bat irekiagoa izatea.

• Zerk amorratzen zaitu?

Nire bizkarrean nitaz gaizki esaka jarduteak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Nire eskuak asko gustatzen zaizkit.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Mutilei, bizkarrari; bizkar zabalak gustatzen zaizkit.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez, lotsatia naiz-eta.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Igeriketa • LIBURU BAT: Ez zaio gustatzen irakurtzea
FILM BAT: 'Seis días y siete noches' • MUSIKA TALDEA: Kortatu • KIROL TALDEA: Tau Baskonia

GORA SANTAMAIÑAK!

Uztailak 17. Asteazkena

- Eguardiko 12:00etan etxafleroak eta kanpai hotsa jaiak adierazteko

Uztailak 18. Osteguna Santa Marina eguna

- Goizeko 10:30ean XIV. Ibilaldi Neurtua jubilatuentzat
- Arratsaldeko 19:00etan herri meza Eliza Nagusian, Udal korporazioarekin,
- Meza ondoren, Aritzeta abesbatzaren kontzertua

Uztailak 19. Ostirala

- Arratsaldeko 16:30ean Aitonetan tute, mus, briska, toka, igel, bolo eta billar finalak jokatuko dira
- Ondoren, Aitonetan sari banaketa
- Arratsaldeko 19:30ean XI. Boccia txapelketa

Uztailak 20. Larunbata

- Arratsaldeko 16:00etan txirrindularitza lasterketa, Santamaña saria

Uztailak 21. Igandea

- Goizeko 9:00etan Herriko txistularien kalejira
- Goizeko 10:30ean Bergarako Udal Musika Bandaren kalejira
- Eguerdiko 12:30ean Fraizkozuri plazan Udal Musika Bandaren kontzertua

ZAHARRENETXETIK

Kultur Hamabostaldia iragartzeko Kartel Lehiaketa deitu du San Joxepe elkarteak

EDU MENDIBIL

Urriaren 8an hasiko den Kultur Hamabostaldia iragartzeko Kartel Lehiaketa deitu du San Joxepe elkarteak. 'Osasun integrala' izango da hamabostaldiaren VI. aldian jorratuko duten gaia.

San Joxepeko zuzendaritza egunotan ari da Kultur Hamabostaldiko programa zehazten. Esan bezala, urriaren 8an hasiko da aurtengo aldia eta, aurreko urteetan gertatu bezala, maila handiko hizlariak ekarriko dituztela aurreratu digu Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidentea. Edozein modutan, abuztuko oporren bueltan egingo dute hamabostaldiaren aurkezpena. Zabaletak zera adierazi digu: "Osasun integrala aztertu nahi dugu aurten, osasunaren alderdi fisikoa, psikikoa, etikoa eta soziala kontuan hartuz".

Antzuolako eta Bergarako erretiratuek hamabostaldiaren kartela aukeratzeko lehiaketa



ARTXIBOA

Argazkian, joan den urteko Kultur Hamabostaldiaren barruan San Joxepen antolatutako ekitaldi bateko irudia.

deitu dute. Teknika librea izango da (*collage*, pintura, argazkiak...) eta lanen neurria 40x60 cm izango da. Pertsona batek, gehie-

nez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu. Derrigorrezkoa izango da kartelean testu hau azaltzea: *Antzuola eta Bergarako jubila-*

tuen VI: Kultur Hamabostaldia. 2002ko urria. Behekó aldean, berriz, *Osasun integrala* jarri beharko da. Lanak entregatzeko

Aurtengo gaia Osasun Integrala izango da eta kartel irabazleak 600 euro jasoko ditu

epea irailaren 6tik 11ra bitartera egongo da zabalik eta irabazleak 600 euroko (100.000 pezeta) saria jasoko du. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute San Joxepe elkarteak, urriaren 4tik 10era bitartean, hain zuzen.

MARTITZENEAN, BIZKAIKO KOSTALDERA Bestalde, urtean barrena San Joxepen antolatutako ikastaroetan parte hartu dutenek Bizkaiko kostaldera irteera egingo dute martitzenean, uztailearen 23an. Bermeo, Gaztelugatxeko Doniene, Bakio eta Plentzia bisitatuko dituzte. Txangora 120 lagun inguru joango dira, egun osorako, eta Bermeon bazkalduko dute.

BEDELKARREN UZTAILAREN 8KO



ZOKKETAKO EMAITZAK



1. SARIA
750€

Marilu Iurrebaso

Zkia.: 74.653. Ikusbi

2. SARIA
450€

Nerea Iztueta

Zkia.: 39.050. Nerea

3. SARIA
300€

Ez da irabazlerik agertu

Zkia.: 73.250. Zapaterikua



ZORIONAK DENOI!

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

1305. urtekoa dugu Santa Marinari eskainitako tenplu baten lehen aipamena.
1542an ekin zioten eliza eraikitzeari, eta ze urtetan amaitu zuten: 1601, 1701 ala 1801ean?

SANTA MARINAKO ALTXORRAK

'San Martín de Agirre' margolana

EUSEBIO CORCUERA (ZAHARBERRITZAILEA)

Santa Marinak margolan bilduma bikaina du, nahiz eta zenbait kasutan egilea nor den jakin ez. Simon Arrieta pintorearen (Bergara, 1915-1969) *San Martín de Agirre* dugu parrokiako margolan berriena, eta nabarmentzeko lana da. Bergarako bista bat ageri da eta San Martínen irudia zeruian, frantziskotar abituarekin jantzita, herriko zaindaria balitz bezala. Antza denez, dohaintza baten ondorioz iritsi ziren elizara margolana, eta jendeak komentatzen duenez, San Martínen irudia margotzeko Simon Arrietak erabili zuen modelo bizirik dago oraindik. Margolana (1,31x1,86 metro) XX. mendeko erdialde ingurukoa da eta exekuzioari dagokionez, sasoi hartako teknika erabili zuen Arrietak, nahiko latza figura errepresentatzeko orduan. Santuaren gainean Beasainek eta Bergarak izan duten lehia azpimarratu zuen. XIX. mendetik Arrue, Valentin de Zubiaurre... eta beste hainbat goi mailako pintore nabarmendu ziren euskal artean. Simon Arrietaren kasuan, Santa Marinako koadroa ikusiz, argi dago bere ofizioa ondo zekien artista zela.

Bergarak eta Beasainek santuaren gainean izan zuten lehia azpimarratu zuen Simon Arrietak



Simon Arrieta pintorea.

GALDEDEBALDE

- Zenbat seinale jarriko ditu Bergarako Udalak herriko baserri bideetan?
A/ 190.
B/ 175.
C/ 350.
- Zein urtetan sortu zuten Bulgariako Naiden Kirov dantza eta antzerki taldea?
A/ 1972an.
B/ 1976an.
C/ 1960an.
- Ipintzako senior nesken futbol txapelketan zein izan da jokalaririk onena?
A/ Nagore Rico.
B/ Silvia Valor.
C/ Sokoia Azkarate.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MIGUEL ANGEL FERNANDEZendako izañ da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Miguel Angel! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Miguel-Pe / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Crestarosa ardo txinpartaduna

75 cl.ko botila

2,99 €

497 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXAGI
JATETXEA


AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaziozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jasotzeko ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Malen
Uztailaren 22an 3 urte.
Urte askotarako!
Asier eta Unai.



BERGARA
Josu Dominguez
Uztailaren 20an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Maialen Zubiaurre
Uztailaren 23an 5 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Ismene Goiti
Uztailaren 14an 9 urte.
Urte askotarako!
Manex, aita eta ama.



BERGARA
Nerea Marzo
Uztailaren 17an 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jon.



BERGARA
Irene Azkargorta
Uztailaren 20an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Etor Vallo
Uztailaren 16an 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Vallo
Uztailaren 19an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nekane Varela
Uztailaren 21ean 11 urte.
Urte askotarako!
Argiñe eta gurasoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenean 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baifxongua

ile
apaindegia
edertze gela
disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

TELEIXA
BILTEGIAK
Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza


Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Bitartean, GOITB.

Uztailean, programazio berezia.

ASTELEHENETAN

- 20:30: Goienasport

MARTITZENETAN

- 20:30: Xeleberri jaietan

EGUAZTENETAN

- 20:30: Programa berezia

EGUENETAN

- 20:30: Iparrorratza

EGUBAKOITZETAN

- 20:30: Musika kontzertuak

Egunero

- 14:00 / 20:00 / 21:30: Berriak

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 19a / 122. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Azoka, frontoi inguruan irailetik aurrera

AINTZANE IRIZAR

Behin baino gehiagotan eskatu diote saltzaileek Udalarari azoka tokiz aldatzea. Saltzaileek egindako azkeneko eskaerari erantzunez, joan den egubakoitzean, batzarra egin zuten saltzaileek eta Udaleko arduradunek; azoka frontoi inguruan egitea erabaki dute.

Duela sei bat urte laga zuten saltzaileek elizpea, eta ordutik hona, Zurrategiko plazan egiten dute egubakoitzeroko azoka. Toki zabala den arren, hainbat arazo sortzen dizkie saltzaileei Zurrategiko inguru horrek. Alde batek, neguan oso toki hotza da eta udan, berriz, izugarriko beroa egiten du, ez dago ia gerizperik. Bestalde, hainbat saltzailearen esanetan, plazara joaten zen baino jende gutxiago joaten ei da Zurrategira, herrigunetik urrunxeago dagoelako.

Arazo handienak, baina, azokako produktuak kargatu eta deskargatzerako orduan izaten dituzte. Izan ere, saltzaileek ezin dute ibilgailurik sartu Zurrategiko plazara. Frontoi ingurura, berriz, ibilgailuan joan ahal izango dira.



Udako oporren bueltan hasiko dira azoka frontoi inguruan egiten.

ESKAERA UGARI

Esan bezala, oraingo hau ez da saltzaileek azoka tokiz aldatzea eskatzen duten lehen aldia. Duela hila-bete gutxi ere antzerako eskaera

egin zuten. Orduan, azoka frontoi barruan egitea eskatu zioten; Udalak, baina, ezezko erantzuna eman zien; frontoia horretarako egokia ez dela azaldu zuen.

KIROLA

Gilmartín segoviarra garaile domekan

Ivan Gilmartín Cafés Baqué taldeko txirrindulari segoviarra izan zen garaile joan den domekako Iñaki Leteren oroimenezko lasterketan. Bakarrik helmugaratu zen Ivan, Bergaratik Antzuolarako bidean ihes egin ostean.

Ihesaldi saiakera ugari izan zen, baina Deskargaraino inork ez zuen lortu tropeletik ihes egiterik; 25 bat txirrindulariko talde batek ihes egin zuen hantxe, eta Angiozarren 50 segundoko aldea atera zion talde nagusiari.

Angiozartik Asentziorako bidean 25 laguneko talde hori desegin egin zen, eta 14 bat txirrindularik egin zuten aurrera.

Ibilbideko 125 kilometroak osatuta, bakar-bakarrik iritsi zen Ivan Gilmartín txirrindularia helmugara, eta 27 segundoko aldea atera zion Aitor Hernández taldekideari. Juan Pablo Magallanes Ulma-Cegasako txirrindulari mexikarra helmugaratu zen hirugarren tokian lasterketan, denbora berera.



132 txirrindularik hasi zuten lasterketa, eta 77 helmugaratu ziren.

HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria • Kazetaria

Gustu kontuak

Gauzak behar bezala badoaz, astelehenean gaur baino askoz ere okerrago egongo naiz. Aurten-go jaien osteko astelehena, gainera, niretzat berezia da: udako oporretako lehen eguna. Horretaz gain, KONTUOLARI euren oporrak tarteko eta irailetik aurrera tarte honetan kolaboratzaile gehiago egongo denez- bolada baterako agur esango diot. Beraz, errepasoaren ordua da:

Ez zait gustatzen... Antzuolan oraindik igerilekurik ez izatea, Kalebarrengo iturrian eta inguruan urik ez egotea, Olarango etxearen inguruak

duen itxura penagarria, frontoi inguruan hainbeste banku jartzea, errekararen auzia oraindik konpontzeke egotea, etxeko balkoitik dagoeneko mendirik ez ikustea, kalean gune berderik ez izatea, jaietan goizean jaurtitzan duten etxafleroaren gehiegizko zarata, urteak joan urteak etorri autoak eta autobusak herri barrutik ziztu bizian igarotzea, guztionak diren gauzak hondatzen ibiltzen



"Gustatzen zait kalean euskara nagusi dela jakitea"

direnak, Karmen eta Eltzikorta gure artean ez izatea, Benítez eskoltekin ibili behar izatea, udaletxean dauden taldeak elkarlanean eta denon mesedean aritu beharrean elkarren aurka aritzea, atletismoan eta txirrindularitzan antzuolarrak ez aritzea...

Gustatzen zait... jaiari hasiera emateko zinegotziak oraindik elkarrekin dantza egiteko gauza badirela ikustea, Antzuola lasai bizi

izateko tokia izatea, adin guztietako umeak kalean jolastea, udaletxera deitu edo joandakoan eta zerbait esandakoan edo eskatutakoan kasu egiten dutela jakitea, kalean euskara nagusi dela jakitea, lantegien osasunak -eta ondorioz herritarrenak- ona ematen duela, igande goizetan txistulariak kalejiran eta arratsaldetan gramofonoa entzutea, zeozertarako laguntza eskatzen denean herriko taldeek berehalaxe ematen dutela ikustea, KONTUOLAn edonork eta edozertaz iritzia eman dezakeela jakitea, eta egunen batean igerilekua izango dugula amestea.

LABUR

Elayri ziurtagiri berri bat emango dio Kontseiluak

Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz izeneko Bai Euskarari ziurtagiria emango dio Kontseiluak Elay enpresari. Ziurtagiri horrek hiru maila ditu eta hirugarren maila eskuratzen duen lehenengo erakundeak izango da Antzuolako enpresa. Uztailaren 23an emango dio Kontseiluak ziurtagiria, Donostian egingo duten ekitaldian.

Duela hamar urte jarri zuen abian Elayk euskalduntze plana, eta gaur egun, euskara dute lan hizkuntza.

ELKARRIZKETA

GAIZKA ASENSIO/KORRIKALARIA

"Niretako, mendian korrika egitea estresaren aurkako gauzarik onena da"

A.I.

Aizkorriko maratoian parte hartu zuen Gaizkak uztailearen 7an, eta denbora ona egin zuen, gainera: 47. postuan sailkatu zen, bost ordu, hogeita hamar minutu eta berrogeita zazpi segunduko denborarekin.

Aizkorrikoa izan da mendiko maratoi baten parte hartzen duzun lehen aldia?

Ez, hau laugarren aldia izan da. Orain dela bost bat urte telebistan ikusi nuen Anetoko maratokia eta neuk ere egin behar nuela pentsatu nuen. Horrela, beste bi lagun ere animatu nituen, Imanol Pildain eta Julen Garitano, eta hirurok joan ginen Antzuolatik. Dena dela, beti izan zara kirolaria?

Hogeita hiru urte nituen arte txirriindularia izan nintzen; gero korrika egiten hasi nintzen eta gustoa hartu nion. Errepideko maratokiek, baina, ez naute erakartzen, estresanteak iruditzen zaizkit. Niretako, estresaren aurkako gauzarik onena da mendian korrika egitea.

Baina gauza bat da korrika egitea eta beste bat mendian eta, gainera, 42 kilometro.

Errepideko maratokia musku-loendako gogorra izateaz gain, bihotza ere asko mintzen du. Mendikoa zeharo ezberdina da; musku-loendako gogorra da, baina bihotza ez du horrenbeste mintzen, beti erritmo berdinean goaz eta.

Zer da maratoko gogorrena?

Niretako jaitsiera izaten da zatirik gogorrena, jaisten oso txarra naiz. Hankak kargatu egiten zaizkit. Egia esan, niretako egokiena izango litzateke 42 kilometroak aldapa gora izatea.

Zela prestatzen da horrelako lasterketa bat?

Orain dela lauzpabost urte, hasi ginenean, zorte handia izan genuen; izan ere, Amaia Zabalek prestatu zizkigun entrena-



JOSE MARI IGARZA

"Niretako jaitsiera izaten da gogorrena, hankak kargatu egiten zaizkit eta"

menduak Anetoko maratokia egiteko. Astean bi bider entrenatzen naiz mendian korrika eta errepidean astean bost egunetan. Gimnasioan ere entrenatzen gara, baina gutxiago.

Oraingo asteburuan ez duzu mendirako planik edukiko...

"Errepideko maratokiek ez naute erakartzen, estresanteak iruditzen zaizkit"

Euskadiko txapelketa jokatzeko da asteburuan Zallan eta hara joateko asmoa neukan, baina herriko jaiak direnez... Dena dela, zeozter egingo dut; goizean goiz jaiki eta mendira edo korrika egitera joango naiz, parranda baino nahiago dut eta.



Giro ona izan zuten erretiratuek

Joan zen domekan ehunetik gora lagun elkartu ziren Antzuolako udal pilotalekuan, erretiratuek urtero egin ohi dute bazkarira. Jai giroa izan zen nagusi, herriko jaietarako egun batzuk baino geratzen ez zirenean. Goizeko 11:30ean meza izan zuten, eta hantxe izan ziren Bergarako San Joxepe abesbatzakoak. Bazkaria 14:00ak aldera hasi zuten; bazkalostean ere jai giroa izan zen nagusi frontoian, eta dantzarako aukera ere izan zuten erretiratuek, Barrutia soinu-jole eibartarraren eskutik./A.I.

LABUR

Eguaztenean asfaltatu zuten Sagasti kalea eta bukatuta laga dute herriko jaietarako

Osoko bilkuran erabaki zuten Asfaltados Urretxu enpresari esleitzeko kale hori asfaltatzeko lanak. 28.023,40 eurokostatuko da asfaltatzea. Herriko jaiak aurretik bukatu dituzte kalea asfaltatzeko lanak; izan ere, konpromiso horixe hartu zuen Urretxu enpresak.

Hormigoia botako dute Aizpurutxo auzotik Pikunieta baserrira doan bidean

Aizpurutxotik Pikunieta baserrira doan bidean hormigoia botako du Antzibar eraikuntza enpresak. Horixe erabaki zuen udalbatzarrak uztaileko osoko bilkuran. 149.581,35 euro (ia hogeita bost milioi pezeta) kostako da lan hori egitea.

Igogailuak jarriko dituztenei dirulaguntzak emateko oinarriak onartu ditu Udalak

Irailaren 30era arte dago diru laguntzak eskatzeko epea eta 2002. urtean igogailuak jarriko dituztenei daude zuzenduta. Horretarako, hainbat irizpide kontuan hartuko dituzte; hala nola, onura jasoko dutenen pertsona eta etxebizitza kopurua, eraikinarik zenbat pisu dituen... Eskaera egin nahi dutenek udaletxeko bulegoetan aurkituko dituzte eskaera orriak eta informazio zabalagoa.

Bertan egotea bezala!

Antzuolako jaietako saio bereziak GOITBn

INFORMATIBOA ANTZUOLATIK

- Egubakoitza, uztaileak 19, 14:00etan
- Errepikapenak 15:30ean, 20:00ean eta 21:30ean

XELEBERRI

- Martitzena, uztaileak 23, 20:30ean
- Errepikapena eguaztenean, uztaileak 24, 14:15ean

Goitb
Goiena Telebista



Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko uztailaren 19a / 106. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Jangela eta bi urtekoen gela zabalik irailerako

OXEL EROSTARBE

Bazkaltzeko orduan umeak non utzi ez zeukatela-eta, arazo ugari izan dituzte zenbait gurasok azken urteotan. Bi urteko umeak dituztenek ere Elgetatik kanpo eraman izan dituzte orain arte. Datorren ikasturtean ez da horrelako arazorik izango.

Aste honetan hasi dira jangela eta bi urteko umeendako izango den gela egiteko lanekin. Eskolako beheko solairuan kokatuko dira bi zerbitzuok. Datorren ikasturterako dena gertu egon dadin, solairu horretan konponketak egiten jardungo dute beharginek datozen asteotan.

Eskolako lehenengo solairuan egingo dituzten konponketa guztiak Delegazioak ordainduko ditu. Sukaldea, komunak, jangela eta bi urtekoendako gela amaituta egongo dira datorren ikasturtea hasi aurretik.

JANTOKIRAKO 18 NESKA-MUTIKO

Jangela zenbat neska-mutikok erabiliko duten jakiteko, inkesta bat bete dute gurasoek. Inkesta horren emaitzetan argi eta gar-



Eguazten goizean hasi ziren eskolako beheko solairuan konponketak egiten.

bi geratzen da jantokiaren beharra. Izan ere, 18 neska-mutikok bazkalduko lukete egunero jantokian. Horiez gain, astero bi edo hiru egunean jangelan bazkal-

duko luketen umeak ere badaude. Azken urteotan, jangelaren beharra aipatu izan du Guraso Elkarteak. Kostata, baina lortu dute umeendako jangela.



Elgetako neskek bikain Ipintzako Txapelketan

Sasoi betian darella erakutsi dabe Elgetako neskek Ipintzako Txapelketan. Izan be, elgetarrak txapelketa irabazteko zorixan izan dira. Txapelketako finala Bergarako Arloteak taldiaren kontra jokatu zeben. Joku bikaina egin zeben arren, 3-1 galdu zeben elgetarrek.

Erretratuan ikusi geinke finalian parte hartu zeban neska taldea. Txapelketa bikaina egin dozue, GOIBEKOKALERen partetik, zorionak! Aupa, Elgeta! /O.E.

ERRETIRATUAK

Balioanizdun Herri Zentroaren proiektua

O.E.

Izen ponpoxo horren atzean Diputazioak hainbat herritan aurrera eraman nahi duen plan esperimental dago. Asmoa da erretiratuendako erresidentziarik ez dagoen herrietan zentro horiek zabaltzea.

Udala Diputazioarekin harremanetan jarri da Elgetan Balioanizdun Herri Zentro horietako bat eraikitzeko. Guztira, 22 milioiko kostua izango du proiektuak

eta Diputazioak erdia ordainduko luke, gehienez.

Domingo Iturbe kalean Udalak dituen bi lokaletan ipiniko lukete zentroa. Lokal baten tutoretzapeko etxebizitza egongo litza ke, hiru logela, sukaldea eta egongelarekin. Beste lokalean, aldiz, 12 lagundako jangela eta egongela egongo liriteke. Lokal horrek Eguneko Zentro bezala jardungo luke. Udalaren nahia datorren urte hasieran lanekin hastea da, seguruenik, bi fasetan.

LABUR

120.202 euroko kreditua eskatuko du Udalak inbertsioei aurre egiteko

Aurrekontuetan onartutakoaren arabera, inbertsioetan 252.425 euro gastatzea aurre ikusi zuen Udalak. Kontuak behar den bezala irteke ordea, hau da, sarrera eta gastuak parekatzean galerarik egon ez dadin kreditua eskatu beharko du. EAJ-EA eta Batasunaren aldeko botoekin 120.202 euroko kreditua eskatzea onartu zuen Udala. Kreditua 15 urterako izango da 3,63ko interesarekin.

Bolatoki tabernak eta kiroldegiak jabe berria izan lezakete irailetik aurrera

Azken asteetan herrian dabilen zurrumurrua egia dela adierazi digute Udaletik. Oraindik ezin da ziurtatu jabe aldaketa izango den, kiroldegiaz eta Bolatoki tabernaz arduratzen direnek ez dute eta erabakirik hartu. Kiroldegiaren eta tabernaren ardura hartzeko prest daudenak herrikoak dira. Oporren aurretik jabe aldaketa izango den edo ez argitzea espero du Udalak.

Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza bigarren Gipuzkoako Dantza Suelto Txapelketan

Trintxerpen jokaturako Gipuzkoako Dantza Suelto Txapelketan bigarren postua lortu zuten Hiart Bolinagak eta Andoni Elortzak. Elgetako bikoteak saio bikaina eginda lortu zuen bigarren postua. Gipuzkoako Txapelketa Donostiako bikote batek irabazi zuen, elgetarrek bigarren amaitu zuten eta bergararrek hirugarren.

Ferixa Nagusixak igaro eta gero, auzoetako jaiak hartuko dute lekukoa oporretan

Udarekin batera Elgetako auzo askotako jaiak heldu dira. Datorren astean bertan hasiko dira auzoetako jaiak: Goimendi auzoan Santixao jaiak izango ditugu, uztailaren 24an eta 25ean; gero, Salbadorko jaiak izango ditugu, abuztuaren 5ean eta 6an; eta abuztu bukaeran Zabaleta auzoan San Bartolomeak ospatuko dituzte.

IRAKURLIAREN TXOKUA

IXILPIAN

Gaztetxeko fanzinearen izenburua dugu. Informazio alternatiboko aldizkaria da, beste komunikabideetan garrantzi gutxi ematen dioten albisteak agertzen dira bertan beste ikuspuntu batetik tratatuta.

Jakintsuak edo asko dakitenek tratatu behar dituzten gaiak direla uste arren, gure eguneroko bizitzan eragin zuzena duten albisteak dira eta beraz egunero-egunero mahai gainean egon behar dira, eta guk geuk eztabaidatu behar ditugu, nahiz eta komunikabide boteretsuak beti gai simple eta ganorabakoekin matxakatzan gaituzten.

Poztekoa gaztetxeko inizatiba berri hau eta espero dut bi hilabetero edo hiru hilabetero beste fanzine bat edukitzea eskuartean. Ziur gainera gero eta hobe izango dela, bai edukien aldetik eta baita itxura aldetik ere. Ahal dudana neurrian nire laguntza hor izango duzue eta espero jende gehiagorena ere izango duzuela, beraz animo gaztetxekoei isilpean egindako lanagatik eta baita fanzinea egiten laguntzeko prest zaudeten denoi, bakoitzak bere esperientziak bere erara azaldu dezan eta denon artean mundu hobeago bat egin dezagun.

B. G. O
NAN: 15.384.028

IRAKURLIAREN TXOKUA

GOIBEKOKALEn zure gutuna argitaratzia nahi izanez gero, GOIBEKOKALEko buzoian laga edo goibekokale@goiena.com helbidera bialdu. Betibe, martitzen goiza aurretik bidaltzia komeni da.

KIROLAK

XVIII. Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa jokatu da domeka goizean

O.E.

Elgetako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, amateur mailako Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa jokatu da domekan. 10:00etan hasi eta 122 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre txirrindulariek, tartean, Xabier Aranguren elgetarrak ere bai.

Guztira, 150 txirrindulariak hartuko dute parte lasterketan. Amateur mailako talde indartsuenak izango dira Elgetan; besteak beste, Caja Rural, Once eta Baque taldeek Elgetara etorriko direla baieztatu dute.

Ibilbidea urterokoa izango da. Elgetatik Bizkai aldera egingo du lasterketak, Zaldibarrera iritsi ondoren, 32. kilometroan lasterketako lehenengo aldapak igo beharko dituzte. Aretio gainera Eibarrera egingo dute txirrindulariek. Horren ondoren, Bergarara, gero, Angiozarrera eta handik Asentzio igo beharko dute.

Asentzio igo ondoren, Elgetara jaitsi eta berriro ere Bizkai aldera egingo dute. Gero, Matiena eta Abadiño igaro ondoren Elorrio eta Elgeta arteko aldapak igoko dituzte. Elgetara igo ondoren, Kanpazarko bidea hartu eta Arrasatera jaitsiko dira. Arrasate eta Bergara arteko bidea egin ondoren, lasterketako azken kilometroak berriro ere aldapsuak izango dira: Bergaratik Elgetara igoko dira eta plaza aurrean amaituko da lasterketa.

XABIER ARANGUREN ERE IZANGO DA

Amateur mailako lasterketa garrantzitsuenetakoa da urtero Elgetan jokatzeko dena. Bertan amateur mailako txirrindulari onenek hartzen dute parte. Xabier Aranguren elgetarra ere bertan izango da.

Iazko irabazlea, Gorka Verdugo, aurtengoan ere garaipena lortzeko faboritoen artean dago. Nahiko lan izango du, Urretxua, Contador eta Albizu ere irabazten ahaleginduko dira-eta.



GOIBEKOKALE

Gorka Verdugok irabazi zuen iaz Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa.

ARETO FUTBOLA

Arineketan eta Txapela nor baino nor

O.E.

Areto Futboleko Txapelketa amaierara iritsi da. Finalaurreko lehiatua jokatu ostean finalerako txartela lortu zuen Txapelak aurreko zapatuan. Arineketanek, aldiz, errazago, Chievo ez zen-eta partidura aurkeztu. Bihar, zapatua, jokatu da finala, 17:30ean.

Arineketan eta Txapela nor baino nor arituko dira biharko finalen. Partidua lehiatua izango da, duda barik. Arineketanek oso joko ona erakutsi du txapelketan. Txapelak, aldiz, markagailuan

atzetik joan arren partidua galdutzat ematen ez duen taldea dela erakutsi du; eta, gainera, badaki zer den finala jokatzeko.

TXAPELAK IAZKO TXAPELDUNEI IRABAZI

Finalerdiak ikustera jende ugari hurreratu zen zapatuan, eta bihar, seguru aski, gauza bera gertatuko da. Txapelak iazko txapeldunen aurka luzapenean irabazi zuen. Vicios 2-0 aurreratu zen markagailuan; partidua amaitzeaz zela, ordea, berdinketa lortu zuten Txapelakoeak. Luzapenean egin zuten garaipena eman zien gola. Arineketan, aldiz, partidua jokatu barik sailkatu zen.

LABUR

Euskadiko Openean bigarren egin eta gero, Espainiako Txapelketara doa Jone Muxika

Aurreko asteburuan Bovedan jokatu zen lasterketan hirugarren geratu eta gero, bigarren amaitu du Euskadiko Openean Jone Muxikak. Alfa Deco taldeko txirrindulariak denboraldi bikaina egiten dihardu eta merezimendu osoz sailkatu da Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Domekan izango da Espainiako Txapelketa, Leongo San Isidro herrian. Jonek badaki parte hartuko duten txirrindulari asko profesionalak direla. Askok sufrituko duela esan digun arren, postu ona egiten ahaleginduko da Leonen elgetarra.

Debagoieneko Pala Txapelketako finalak jokatu dituzte bihar, zapatua, goizean

Zapatu goizean, Debagoieneko pala txapelketako finalak jokatu dira Elgetako frontoian. Goizeko 10:30etan hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partidua jokatu dute Ander eta Ibai Etxanizek Igor Zenitagoia eta Asier Muruamendiarazaren aurka.

Goizeko 11:30etan finala jokatu da. Bertan Mikel Elkorro eta Txaraka elgetarrek, Jaime Acedo eta Xabier Aranburu azpeitarrak aurka jokatu dute.

Finalak amaitutakoan sari banaketa izango da.

BOLATOKI

taberna-jatetxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburueta menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR

ER

Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ERRETRATUZAHARRA

Segalarixen
arteko posturia
Elgetan

Herrixan egin dan azken posturia bonbonia gainian hartuta Intxortara igo eta Asentziora eruatia izan da. Ez zan postura makala izan. Lehenago be posturak egitten zirala bagenkixen arren, kostau jaku lehenaguko posturaren bat ikusi geinken erretratu topatzia. Baiña azkenian topau dogu!

Erretratuan ikusi geinken posturia Asentzio azpiko zelaixan egin zan. Urte konkretua jakitterik izan ez dogun arren, 20 urte baiño gehixago izango dira. Herriko bi gaztek segan jardun zeben alkarren kontra. Asentzio inguruan jente ugari batu zan, posturia zeiniek irabaziko zeban ikusteko asmoz. Askok dirua jokatu zeben, seguru. Batzuk Jose Luis Arrotakuan alde eta beste batzuk Jabier Oleikuan alde. Zeiniek irabazi zeban ez dotsuegu guk aurreratuko. Hurrengo kalia ikusten dittuzuenian zeuek galdetzia onena.

Erretratuan, ezkerretik eskumara: Jabier Elortza, Gotzon Elkoro, Pello Gorrotxategi, Mikel Mandaluniz, Jose



Ramon Arantzabal, Felis Sarasketa, Jose Mari Arozena, Luis Mari Arantzeta, Fernando Arantzeta eta Iñaki Elkoro.

Segan diharduan gizona Jose Luis Agirregomezkorta da, *Arrota*-kua.

Argazkia: Juan Mari Arantzeta

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Basarrixan
be aldaketak
izan dira

Basarri giroko erretratuak ikusiko dittugu gaurkuan. Izan be, herrixan gauzak aldatzen doiazen moduan, basarrixan be aldatu dira. Gaur, traktoriak eta gainontzeko tresneria mekanikuak erabiltzen dittuen arren, lehenago, animalixen inddarra erabiltzen zeben. Orduan, goldia pasau edo moztutako bedarra eruateko idixak erabiltzen zittuen.



≈ 1975 Hemen erretratuan idi paria ikusi geinke. Gurdixa bedarrez betetzen zebenian, tiraka eruaten zeben idixak basarrira.



2002 Gaur egunian traktoriak egitten dittue lehenago animalixak egitten zittuen biharrak. Gero eta gutxiago, herriko soruak desagertzen doiaz-eta.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Toki-Ona bodegoia

Matxiategi 1

Itziar mertzeria

Matxiategi 1

Saloki mertzeria

Matxiategi 2

Herran

Matxiategi 3-4

Gorosti loradenda

Matxiategi 3

Flor arraindegia

Fleming 3

Carasa, Cilveti, Lacort y cia. aseguruak

Fleming 3

Berotzi ileapaindegia

Fleming 5

Antia harategia

Matxiategi 8

Mizpildi okintegia

Matxiategi 1

Olabe okindegia

Matxiategi 4

Estella ortopedia

Matxiategi 5

Pilar frutadenda

Matxiategi 4

Kayak taberna

Matxiategi 3

Eladio oinetakoak

Matxiategi 2

Super Tandy supermerkatua

Matxiategi 7

Matxiategi taberna

Matxiategi 12 behea

Akort publizitatea

Mugertza 7

Gorla elektrizitatea

Mugertza 3

Juana Elgetarra mertzeria

Zubieta 38

Yon Bilbao elektrizitatea

Fleming 11


Ikasle liburudenda

Fleming 11

Adats ileapaindegia

Matxiategi 7

**Ondo ibili
Santamainetan!**



Alga perfumeria
Amaia perfumeria
Galarreta oinetakoak
Gracian mertzeria
Igarza mertzeria

BEHERAPENAK